

PRESTAKUNTZA ARLOA:	ADMINISTRAZIOKO OINARRIZKO GAIAK
MODALITATEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	GAZTELANIA

PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

KODEA

2019/0/9/1

INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Maiatzak 16 eta 17	TOKIA/IKASGELA	Bilbo. IVAPeko egoitza (Errekalde zumarkalea, 18)
IRAUPENA	10 ordu	ORDUTEGIA	09:00-14:00
MATRIKULA EPEA	Apirilak 19	ONIRITZI EPEA	--
IKASLE KOPURUA	20 pertsona	HARTZAILEAK	EAEko toki-erakundeetan lan egiten duten pertsonak
HAUTATZE IRIZPIDEAK	--	LEHENTASUNA	Altua
IRAKASLEA	Silvia Diez Sastre. Madrileko Unibertsitate Autonomia	MATERIALA	Ikastaroari dagokion materiala eskuragarri egongo da.
DISEINUA	EUDEL-ALDUNDIAK-IVAP	AZPIEGITURA	Ordenagailu eramangarria, proiektorea, papelografoa, Internetera sarbidea.

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK	Zehatzeko ahalaren erabilerari buruzko, berori inguratzen duten mugei buruzko eta zehapenak ezartzeko nahiz horiek betearazteko jarraitu behar den prozedurari buruzko ezagutzan sakontzea, ikuspegi bereziki praktikotik abiatuta.
IKASLEEN HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> Zehatzeko ahalaren erregulazioari eta berori erabiltzeko prozedurari buruzko ezagutza eguneratzea, estatuko eta autonomia-erkidegoko araudiari begira. Lan-arloan zehatzeko ahalaren inguruan dagoen jurisprudentzia garrantzitsuenari buruzko ezagutzak eguneratzea. Arau-hausteen eta zehapenen diseinuan dauden arazoen eta jarduera hori inguratzen duten mugen inguruan hausnartzea. Tokiko erakundeetan prozedura zehatzailea izapidetzean sor daitezkeen zalantzen eta arazoen inguruan hausnartzea eta horiek konpontzea.
GAITASUNAK	<p>Prestakuntza-jarduera amaitzean ikasleek honako gaitasun hauek izango dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> 39/2015 Legea eta 40/2015 Legea onetsi ondoren zehapen-arloan ezar daitezkeen arauak ezagutzea eta identifikatzea, legedi aplikagarriarekin kontraesana egon daitekeenean. Zehatzeko Ahalari buruzko 2/1998 Legea erreformatuta sartu diren berritasunak ezagutzea eta identifikatzea. Tokiko arauetan arau-haustea eta zehapenak diseinatzea, ordenamendu juridikoan dauden mugen barruan. Tokiko erakundeen eremuan prozedura zehatzaileak izapidetzetik sor daitezkeen arazoak konpontzea, zuzenbide positiboaren irizpideekin eta jurisprudentziarekin bat eginez (preskripzioa, iraungipena, prozeduraren etena, barkaberatasun-programak...).

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA	Eskolak beheko programaren inguruan egituratuko dira. Hala ere, ikastaroa hasi aurretik, arloan gehien interesatzen zaizkien kontu arazotsuak formulatzea eskatuko zaie parte-hartzaileei, horiek modu sistematikoan eta ikastaroko edukiekin batera argitzeko xedez. Ikastaroa hasi baino 20 egun lehenago bidaliko
--------------------	--

PRESTAKUNTZA ARLOA:	ADMINISTRAZIOKO OINARRIZKO GAIAK
MODALITATEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	GAZTELANIA

PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

dituzte kontu horiek, helbide honetara: miriam-berasategi@ivap.eus
PPT formatuko aurkezpenen bidez gidatutako azalpenekin garatuko dira eskolak, eta, osagarri gisa, irakurgaiak banatuko dira. Horien artean, doktrina-testuak, aholkularitza-organoen irizpenak eta jurisprudentzia (konstituzionala nahiz administrazioarekiko auzien arlokoa) egongo dira. Halaber, ikasgelan ebazteko kasu praktikoak proposatuko dira, azaldutako arazoak hobeto ilustratzeko asmoz.

I.- ITURRI-SISTEMA ERATZEA, ZEHATZEKO TOKIKO AHALA ERABILTZEAN.

1. Konstituzioan aitortzen diren oinarrizko eskubideak. Zehatzeko ahalaren printzipioak.
2. Estatuko oinarrizko erregulazioa.
3. Zehapen-arloko araudi autonomikoa. Zehazki, 2/1998 Legearen erreforma.
4. Legedi sektoriala.
5. Toki-araudirako tokia: lege-erreserba eta konstituzio-printzipioak.

II.- ZEHATZEKO AHALAREN ARAUAK EZARTZEKO EREMUA.

1. Zehatzeko ahala erabiltzen duten subjektuak.
2. Zehapenaren konstituzio-kontzeptua.
3. Arau-haustearen subjektu erantzuleak. Bereziki, adingabeak.

III.- PRESKRIPZIOA ETA IRAUNGIPENA

1. Arau-hausteen preskripzioa: epeak eta zenbaketa.
2. Zehapenaren preskripzioa: epeak eta zenbaketa.
3. Preskripzio-epean prozedura irekitzea: mugak.
4. Gelditasun materialaren ondorioak: iraungipena. Ebazteko eta jakinarazteko epea: zenbaketa.

PROGRAMA

IV.- PROZEDURAREN AURRETIKO JARDUKETAK

1. Informazioa eta aurretiazko jarduketak.
2. Behin-behineko neurriak.

V.- ZEHAPEN-PROZEDURA

1. Hastea. Modalitateak; bereziki, salaketa. Barkaberatasun-programak.
2. Instrukzioa. Froga. Entzunaldia.
3. Dosimetria zehatzailea.
4. Amaiera. Jarduketa osagarriak. Izapidetze motak: ebazpena, amore-ematea, atzera-egitea, iraungipena. Zehapenaren murrizketak.
5. Izapide sinplifikatua.

V.- PROZEDURA OSAGARRIA

1. Urratutako legezketasuna lehengoratzeko eta eragindako kalteengatik ordaintzeko betebeharra.
2. Prozedura osagarria.

VII.- ZEHAPENAK BETEARAZTEKO PROZEDURA

- Ebaluazioaren helburua: Ikastaroaren helburu orokorrak eta zehatzak betetzen direla bermatzea.
- **Ebaluazioaren edukiak:** 15 galderako test-proba egingo da. 8 galderari erantzun beharko zaie zuzen, proba gainditzeko. Erantzun okerre ez dute zigortuko. Ikastaroaren bigarren saioa amaitzean egingo da testa, eta 30 minutu egongo dira egiteko. Azken kalifikazioa GAI / EZ GAI gisa

EBALUAKETA



PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

adieraziko da.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazioa inkesta

Bete beharreko baldintzak:

- %80ko bertaratzea
- Aprobetxamendu proba gainditzea

ZIURTAGIRIA DIGITALA: APROBETXAMENDUA

Ziurtapen elektronikoaren mezua jaso bezain pronto [ziurtagiri digitala](#) eskuragarri izango duzu. "IVAPekiko Izapideak" atalean sartu eta "Ziurtatzeak" botoia sakatu.

PREZIOA

114€ (AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena).